

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ERRIBERA BEITIKO UDALA

Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeari

Erriberabeitiko Udalbatzak, 2020ko urtarrilaren 13an egindako ohiko bilkuran, eta 2019ko irailaren 9ko behin-behineko onspen erabakiaren aurka aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, erabaki du behin betiko onestea zerbitzu publikoengatik eta administrazio jarduerengatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeko espedientea, zeinak epigrafe hauetan eragina baitu: 1 (udal igerilekua erabiltzea), 2 (kirol instalazioak erabiltzea: pistak, kiroldegia, beste batzuk), 3 (gimnasioa erabiltzea), 4 (kirol eta kultura jarduerak), 5 (udal rokodromoa erabiltzea), 6 (instalazio soziokulturalak erabiltzea), 7 (udako campusa), 8 (euskara eskolak). Hona hemen epigrafe horietan zer aldaketa erabaki den hitzez hitz:

1 epigrafea.– Udal igerilekua erabiltzea

KONTZEPTUA	TASA OROKORRA	TASA HOBARIDUNA
Egun baterako sarrerak		
Haurrak (3 urte arte), guraso edo tutoreekin	— €	— €
4-14 urte bitarteko haurrak	4,00 €	2,00 €
15 urtetik gorakoak	6,00 €	4,00 €
Taldeak		3,00 €
Abonamendu pertsonalak		
Banakoa	60,00 €	30,00 €
Familia abonamenduak	100,00 €	50,00 €

Abonamenduak kiroldegian horretarako prestatutako lekuan aterako dira; izena emateko inprimakia bete beharko da, eta ordainketa makinaren bidez egin. Eguneko sarreren kasuan, kiroldegiko makinetan erosiko dira.

Udalak eskubidea izango du abonamendurik ez emateko, baimendutako edukiera gaindituko dela iruditzen bazaio.

Udalak eskubidea izango du eguneko sarrerarik ez saltzeko, baimendutako edukiera gaindituko dela iruditzen bazaio. Halako kasuetan, gehienez ere sarreren ehuneko 10 salduko du.

Eguneko sarrerak egun osorako balioko du. Sarrera pertsonalizatu egingo da, kanpora irten nahi duenak egun berean berriz sartzeko aukera izan dezan.

Familia abonamenduak pertsona hauek hartuko ditu barne: ezkontideak edo izatezko bikotekideak eta ezkontide edo izatezko bikotekideen seme-alabak, baldin eta 18 urtetik beherakoak badira edo 25 urtetik beherakoak izanda ikasketa arautuak egiten ari badira.

Erroldatutakoen familia abonamendua atera ahal izateko, kide guztiek udalerrian erroldatuta egon behar dute.

Oharra: Erriberabeitian erroldaturiko familia ugariak eskatutako familia abonamenduek ehuneko 50eko hobaria izango dute (hala jasotzen du Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeak).

Instalazioa erabili nahi duten taldeek zenbait egun lehenago egin beharko dute eskaera, eta udalaren baimena jaso beharko dute. Baimendutako taldeek 17:00ak arte erabili ahal izango dute instalazioa.

2 epigrafea.– Kirol instalazioak erabiltzea (pistak, kiroldegia eta beste batzuk)

INSTALAZIOA	KONTZEPTUA	TARIFA/ORDUA
Pilotalekua	4 pertsona arte (argirik gabe)	7,00 €
	4 pertsona arte (argiarekin)	11,00 €
	Taldeak, 5-10 pertsona (argirik gabe)	20,00 €
	Taldeak, 5-10 pertsona (argiarekin)	30,00 €
Padel pista	Argirik gabe	10,00 €
	Argiarekin	12,00 €
Areto futbol eta hockey pista	Argirik gabe	20,00 €
	Argiarekin	30,00 €

1. oharra: guraso elkarteak eta eskola publikoak antolatzen dituen jarduerak udalarekin sinatutako kontratu edo hitzarmenaren arabera arautuko dira.

2. oharra: kirol instalazioak erabiltzeko orduak eskatu eta esleitzeko orduan, lehenasuna izango dute udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, edo, klubaren edo elkarten kasuan, udalerrikoak direnak.

3. oharra: klubek eta elkarteek kiroldegia erabili nahi izanez gero, idatziz egin beharko dute eskaera, udalak emandako inprimaki normalizatuan, eta berariaz adierazi beharko da kiroldegia erabiltzeko baldintzak onartzen direla.

4. oharra: banakako erreserba eskaeren kasuan, kiroldegian egin beharko dira, makinaren bidez.

5. oharra: kiroldegia ohikoa ez den zerbaitetarako erabili nahi bada (txapelketak, ikuskizunak...), eskaera gutxienez 15 egun lehenago egin beharko da.

6. oharra: instalazioak erabiltzeagatiko tasa udalak baimena eman ondoren ordaindu beharko da, eta jarduera egin baino lehen.

7. oharra: udalak instalazioa erabiltzeko baimena eman ostean, eskatzaileak dagokion kuota ordaindu beharko du, nahiz eta jarduera hori azkenean ez egin.

8. oharra: larunbat eta igandeetan, 12:00etatik 14:00etara frontoia libreki eta doan erabili ahal izango dute udalerrian erroldatuta daudenek, frontoiko jarduerak egiteko. Bestalde, larunbat eta igande arratsaldetan herritarrek erabilera anitzeko pista erabili ahal izango dute kirola egiteko, baldin eta leku hori ez badute aurrez erreserbatu udalarekin hitzarmena duten klubek eta elkarteek.

3 epigrafea.– Gimnasioa erabiltzea

KONTZEPTUA	TARIFA HILEAN
Pertsonako	15,00 €

Oharra: Gimnasioa erabiltzea debekatuta dago 18 urtetik beherakoentzat. Salbuespen gisa, 16 urtetik gorakoek erabili ahal izango dute baldin eta aitaren, amaren edo tutorearen baimena badute, eta pertsona hori izango da adingabearen erantzule.

4 epigrafea.– Kultur eta kirol jarduerak

KONTZEPTUA	ORDUAK ASTEAN	TARIFA IKASTURTEKO, OROKORRA	TARIFA IKASTURTEKO, HOBARIDUNA
Mantentze fisikoa (ikasturtea)	1 h	100,00 €	50,00 €
	2 h	200,00 €	100,00 €
	3 h	300,00 €	150,00 €
Kirol jarduerak. Irakaskuntza (igeriketa)	5 h/astean		10 € (hamabostaldia)
Kirol eta kultur jarduerak	1-2 h/astean	10,00 €	5,00 €
	3-4 h/astean	20,00 €	10,00 €
	5-6 h/astean	30,00 €	15,00 €
	7-8 h/astean	40,00 €	20,00 €
	9-10 h/astean	50,00 €	25,00 €
Praktika artistikoa (ikasturtea) Hastapena	1 h	100,00 €	50,00 €
	2 h	200,00 €	100,00 €
	3 h	300,00 €	150,00 €
Musika			
Haurrentzako musika		207,00 €	207,00 €
Abesbatza		90,00 €	90,00 €
Combo		315,00 €	315,00 €
Solfeo bakarrik		180,00 €	180,00 €
Banakako tresna		600,00 €	405,00 €
Tresna taldean		315,00 €	315,00 €

Kirol eta kultura jardueren kasuan (musika eta mantentze gimnastika salbuetsita), gutxienez 8 pertsonak eman beharko dute izena ikastaro bat egin ahal izateko. Spinning jardueraren kasuan, gutxienez 5 pertsonak eman behar dute izena ikastaroa egin ahal izateko.

Jardueretan txandak aldatzea: udalari eskatu beharko zaizkio txanda aldaketak, horretarako bidezko arrazoiak emanaz. Gehienez ehuneko 20 txandaz aldatzea baimenduko da, edo txanda bakoitzeko 5 pertsona.

Jarduera baterako dauden plazak baino eskaera gehiago egiten badira, abonamendua duten pertsonen izango dute lehentasuna.

Ikastaroren batean bertaratzeak gutxituz joaten badira, udalak eskubidea izango du ikastaro hori bertan behera uzteko (dirua proportzionalki itzuliko du, izena ematean ordaindutako kopuruaren arabera). Izena emateko, nahitaezkoa da inprimakia betetzea (interesdunen eskura dago udaletxean). Ordaindu behar ez diren jarduetarako ere, nahitaezkoa da udaletxean eskura dagoen inprimakia betetzea.

Jarduerak ordaintzeko baldintzak:

Ordainketa txartelaz edo eskudirutan egin daiteke, kiroldegian dagoen makinaren bidez, sarbideak kontrolatzeko langileak kiroldegian dauden orduetan.

Ikastaro jakin batzuetan edo ikastaro monografikoen kasuan, ordainketa izena ematean egingo da (horretarako inprimakia betez), eta betiere jarduera hasi baino lehen, jarduera bakoitzari buruzko argibideetan adierazitako datak errespetatuz.

100 eurotik beherako kostua duten ikastaroen kasuan, zenbateko hori osorik eta behin zordunduko da, jardueraren lehen hilabetean.

100 euroko edo hortik gorako kostua duten ikastaroen kasuan, erroldatuek edo zergadunek aukera izango dute zenbateko osoa bi zatitan ordaintzeko: lehena izena ematean, eta bigarrena azaroan.

Plaza ez da formalizatuko harik eta dagokion zenbatekoa ordaindu arte.

Ikastaroa amaitu baino lehen utziz gero, osorik ordaindu beharko da.

5 epigrafea.– Udal rokodromoa erabiltzea

Eguneko sarrera (2 ordu)	Orokorra	12,00 €
	Hobariduna	6,00 €
Urteko abonamendua (irailaren 1etik abuztuaren 31ra)	Orokorra	140,00 €
	Hobariduna	70,00 €

Rokodromoa irakaslerik gabe erabili ahal izateko (hau da, ikastaro batetik kanpo), ezinbestekoa da eskaladan eskarmentua izatea eta gutxienez beste pertsona batekin joatea.

18 urtetik beherakoak heldu batekin joan beharko dira, edo guraso edo tutoreen idatzizko baimena izan beharko dute, eta pertsona horiek beren gain hartu beharko dituzte ondorio guztiak.

6 epigrafea.– Instalazio soziokulturalak erabiltzea

KONTZEPTUA	TARIFA/ORDUA
Fidantza (nahitaezkoa)	50,00 €
Gizarte eta kultura etxea Aretoka	15,00 €

1. oharra: Guraso elkarteak, eskola publikoak, irabazi asmorik gabeko elkarteek eta alderdi politikoez herritarrentzat antolatzen dituzten jarduerak udalarekin sinatutako kontratu edo hitzarmenaren bidez arautuko dira.

2. oharra: kultura instalazioak erabiltzeko orduak eskatu eta esleitzeko orduan, lehentasuna izango dute udalerrian erroldatuta dauden pertsonak, edo, elkarteen kasuan, udalerrikoak direnak.

3. oharra: eskaerak idatziz egin beharko dira, gutxienez jarduera egin baino 15 egun lehenago, udalak emandako inprimaki normalizatuan, eta berariaz adierazi beharko da instalazioa erabiltzeko baldintzak onartzen direla.

4. oharra: instalazioak erabiltzeagatik tasa eta fidantza udalak baimena eman ondoren ordaindu beharko dira, eta betiere jarduera hasi baino lehen.

5. oharra: udalak instalazioa erabiltzeko baimena eman ostean, eskatzaileak dagokion kuota ordaindu beharko du, nahiz eta jarduera hori azkenean ez egin.

6. oharra: fidantza itzuli egingo da, instalazioak laga diren egoera berean daudela egiaztatu bezain laster.

7 epigrafea.– Udako campusa

KONTZEPTUA	ASTE OROKORRA	ASTE HOBARIDUNA
Parte hartzaile bakoitza	80,00 €	40,00 €
2. neba-arreba (hobariduna bakarrik)		% 20ko deskontua
Goizeko zaintza	15,00 €	7,50 €
Hobaridunak	% 10eko deskontua 3 aste jarraian izena emanez gero	
Hezkuntza behar bereziak dituztenentzako plazak	plaza 1 asteko (lehentasuna dute hobaridunek)	

1. oharra: izen ematea kiroldegian egingo da; eskaera orria bete beharko da horretarako, eta ordainketa une horretan egingo da.

2. oharra: izen ematea campusari buruzko publizitatean adierazitako epean egingo da.

3. oharra: behar bezala justifikatuta dauden bajak baino ez dira onartuko. Campusa utzi nahi duenak beharrezko dokumentazio guztia aurkeztu beharko dio udalari, hark baja onar dezan eta ordaindutakoa itzuli diezaion.

8 epigrafeak.– Euskara eskolak

HOBARIDUNA	90,00 € / IKASTURTEA
OROKORRA	180,00 € / IKASTURTEA

Tasa guztientzako zehaztapenak:

Tasaren ganean hobaria jaso ahal izateko, eskatzaileak udalerrian erroldatuta dagoela egiaztatu beharko du, udalerrri horretako zergaduna izan beharko du edo gutxienez ehuneko 30eko desgaitasun maila izan beharko du aitortuta.

Epigrafe honetan xedatutakoetarako, erroldatua da Erriberabeitiko udal biztanle erroldan izena emanda dagoena udal igerilekuetako abonamendua eskatu baino bi hilabete lehenagotik, gutxienez.

Zergaduntzat jotzen dira udalerrian zergak ordaintzen dituzten pertsonak, bai eta haien lehen eta bigarren mailako senideak ere.

Udalarekin zorretan dauden pertsonak ezingo dute hobaririk jaso, nahiz eta horretarako baldintzak bete, eta tasa osorik ordaindu beharko dute.

Zerga ordenantza honen behin betiko onespeneraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalgo dute interesdunek Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzietarako salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorri, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46. artikuluan xedatutakoarekin.

Horrek guztiak ez du eragozten interesdunak egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkeztea.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Ribabellosa, 2020ko urtarrilaren 21a

Alkatea

MIREN SANTAMARÍA MARTÍNEZ